



### 3 ELKARTASUNA

#### Biladi Hadi Palestinako argazki erakusketa

Biladi Hadi elkartasun brigadak jasotako argazki bilduma Manuel Lekuonan dago. Palestinan egindako argakiak dira eta hauekin Euskal Herriko hainbat esparruetako pertsonak idatzitako testuak. "BILADI HADI hamaika begirada Palestinari, Euskal Herriatik" liburua eta diskoa kaleratu zuen brigadak eta erakusketa hau lan honen jarraipena da.

### 4 AURREKONTUAK

#### Azken lau urtetako lehen aurrekontuak onartu dira

Bildu, EAJ eta LOHP alderdien aldeko bozkekin aurrekontuak onartuko zirela aurreratu zuten udal ordezkariak baina Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuak, PSE-Eetik ateratzen, ezustekoa eman eta aurrekontuen aldeko bozka eman zuten ere astelehenean ospatu zen ez ohiko udalbatzarrean.

### 5 HEZKUNTZA

#### Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkartea saritua

Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteak bigarren saria irabazi du Euskadiko Guraso Elkarten Hezkuntza Jarduera Onen lehiaketan. Saria Zarautzen ospatu zen eskola publikoan festa handiaren baitan eman zitzaizkien. Lan onari aitortzea izateaz gain, 1.000 euro jaso ditu elkarteak. Azken urtean bost kide izatetik hogeira pasa dira taldean eta gogotsu daude lan asko egiteko.

## Okendo plaza sorginduko dute

Sorgin Jaiek ekainaren 27an emango diete hasiera San Pedro Jaiei

Asteazkenean aurkeztu zuen Sorgin Jaietako batzordeak San Pedro jaietako egitaraua. Aurten Udaletxearen oztoporik gabeko jaiak antolatu dituzte gazteek eta kokaleku berria izango dute, Okendo plaza. Honela, herriko gazteek ekainaren 27an hasi eta uztailearen 1ean amaituko diren jaiak taupada biziz beteko dute plaza.



Sorgin Jaiek aurten Okendo plaza, herriaren bihotza San Pedro jaietan taupaka jarriko dute ekintza ugariekin.

San Pedro egunerako aste bete geratzen da eta gure herriko jaietan egingo diren ekintza ezberdinei buruz jakiten ari gara aste hauetan. Asteazkenean, Sorgin Jaietako Ane Labaka eta Oihan Agirretxe kideek Sorgin gunean izango diren ekitaldien berri eman zuten.

"Hasierako urteetan kolpatuak izan zirenen amorruekin, urterik urte kanpotik etorri zaizkigun herrien bizitasunarekin, herriaren falta zaizkigun herriarenekin, berdintasunaren aldarriarekin, autogestioarekin, lanarekin, borrokarekin, ilusioarekin" datoz Sorgin Jaiek.

Aurten gainera, Labakak azpimarratu zuen bezala, udaletxearen oztoporik gabe eta kokaleku berria, Okendo plazan, "gure herriko bihotza dena eta ekainaren 27tik uztailearen 1era inoiz baino taupada biziagoak emango dituen".

Gainera, Sorgin Jaietako batzordean belaunaldi aldaketak izan dela jakin arazi

zuten eta honen ondorioz, inoiz baino festa gazteagoak izango direla aipatu zuten.

#### Egitaraua

"Lehengoez egindako bideari jarraiki, iragana eta oraina lotzen saiatu gara" adierazi zuten. Honela, aurreko urteetan antolakuntzan lan egin duten jendea izango da omendua aurtengo Sorgin Jaietan eta haiek emango diete hasiera.

Azpimarragarria da Sorgin Jaiei amaiera emateko antzerki-akelarrea berreskuratu dutela aurtengoan.

Honetaz gain, ezin falta Kuadrilen jaitsiera, kontzertuak, Oria jaitsiera, mus eta eskoba txapelketa eta iaz lehengoaz egin ziren eskalada txapelketa eta bakailao txapelketa.

#### Bakailao txapelketa

Igandean uztailearen 1ean, eguerdian izango da Lasarte-

Oriako II. bakailao txapelketa.

Sorgin jaiako kideek jakitera eman zuten, txapelketaren oinarriak Jalgi, Ilargi, Trumoi, Gure Etxea, Artizar eta Txanpa tabernetan jarri dira herri-tarren eskura.

Izena ematea Jalgi tabernan edo sorginjaiak@gmail.com helbide elektronikoan egingo da ekainaren 28a baino lehen.

#### Gazte eguna

Gainera, urtero legez, ekainaren 30ean, Gazte egunean beste herri batzuetako gazte gonbidatuak etorriko dira.

Gazte bazkaria egongo da eta bazkalostean bertsolariak izango dira. Jarraian, olinpiadak egingo dituzte.

Bazkariko tiketak 12 eurotan Artizar, Ilargi, Xirimiri, Trumoi eta El Bar de Mauen daude salgai.

Beste egunetako bazkari eta afarietako tiketak ere

ohiko tabernatan daude salgai.

#### Oharrak

Hainbat ohar jakitera eman zituzten batzordeko kideek.

Bakailao txapelketarekin batera txakolin dastaketa egongo dela esan zuten. Aurreko urteetako zapiak erabiltzea eskatu zuten eta Okendo plazan asteazken eta ostiraletan 18:30etatik 20:30etara jarriko den postuan kamisetak saltzeaz gain, aurreko urteetako edalontziak berrerabiltzeko jasoko dituztela adierazi zuten.

#### Gune askea

Gainera, Sorgin gunea gune askea dela gogoratu zuten, "bertan ez da jarrera sexista, homofobo edo arrazistik onartuko". Herri-tarren animatu zituzten jaietan parte hartzea, "herriarentzat eta herri-ekin-dako jai hauek herri-tarren koloretzat ditzagun".

JATEN DUGUNA GARAI!



Arandegia



KALITATEA  
PREZIO JUSTUAN

Zorionak gure bezeroei!

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Eskerrik asko guregan jarritako konfidantzagatik**

ORDUTEGIA  
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara  
Astearte eta ostiraletan arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era

Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946  
Mikeletes Pasealekua 8 behe 6 • (Antiguo) Donosti • Tel.:943 217698

Neure kabuz



Ane Labaka

Sorgin Jaiak

Heldu da uda. Eguzkia, sargoria, hondartza, kafea izotzarekin, beroa... eta festak. San Juanekin hasi, San Pedroekin jarraitu... festarik festarako udako bidaiari santu izen ezberdina duten herrietan santu izateari utziko diogu. Trago hau urte osoa ikasten pasa ondoren hurrengo urterako utzitako ikasgaiarengatik, lanera bi minutu berandu iristeagatik oihuka hasten den enpresako nagusiarengatik, 4,8 batekin gaudituz nahi ez zizun irakaslearengatik, lankide ipurterrearengatik... Eta luzatu zerrenda hurrengo eguneko buruko mina eta ibuprofenoa ziurtatu arte, gutxienez. Debekatuta dago triste egotea. Penak itozten saiatu zaitzetzeko, baina jakin batzuk aspaldi ikasi zutela beren kabuz "igeri egiten", eta aurrera.

Batzuen ustez hiriburuetak Aste Nagusiak dira onenak, beste batzuentzat Lesakako San Fermiñak, besteentzat Iruñakoak, bada Hernaniko San Juanak hautatuko dituenik ere, edo herri txikietakorromeriak.

Nik ordea, nahiago ditut herrikoak, eta San Pedroak baino are gehiago Sorgin Jaiak, herrikoak izateaz gain herrikoiak direnak, herri txiki herriarentzat eginak direnak. Santutik baino sorginetik gehiago dudalako izango da, agian. Baina ez horregatik bakarrik; zure sentitzen duzun zerbaitek eskeini ahal dizun gozamen eta harrotasunak ez du parekorik. Gozamenaren aurretik, ordea, izerdi usaia eta lana dira nagusi; urte osoan zehar ostiralero egiten diren bilerak, txoznak pintatzerakoan pinturaz zikintzen diren eskuak, mila gauza lotzeko egiten diren telefono deiak, montajearen solte dauden iltzeak, azken momentuko buruhausteak... Hala ere, ilusioa eta gozosa irten ohi dira garaile; herria irten ohi da garaile.

Gora Sorgin Jaiak!

Zorion agurrak



Juan Mari

Zorionak zure gurasoen partetik! Asko maite zaituzte!



Andrea

Zorionak maitia zure 3. urtebetetzeari. Familia guztiaren partetik, muxu asko printzesita!!



Lorea

Zorionak sorgina zure lehen urtebetetzeari! Muxu handi bat aita, ama eta familien partetik.



Mario

Zorionak zure bigarren urtebetetzeari. Zure arreba, izeba-osaba eta amoniren partetik.




Asier

Zorionak bihotza! 4 muxu handi handiak zure aitaxo, amatxo eta Iratiren partetik!



Enara

Zorionak! 5 muxu eta bosteko bat familia eta lagun partetik! Festetan ospatuko dugu!



Alazne

Zorionak etxeko artistari. Muxu asko familieren partetik.



Aray

Zorionak bonboia! Muxu handi bat gurasoen eta lan-en partetik.



Agus

Zorionak amatxo! Aurten ere San Joan suaren inguruan ospatuko dugu ezta? Muxu bat Puchiren partetik.



June

Zorionak! Txokomarrubizko sei muxu Mar-kei eta familia guztiaren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Xare Iriondo Sanchez, ekainaren 15ean.
- Amy Yasegui Leon Carpio, ekainaren 14an.

Heriotza

- Ernesto Marcos Avila, ekainaren 20an, 76 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 22</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 23</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Igandea, 24</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Astelehena, 25</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Asteartea, 26</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 27</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 28</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chula, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680 674 577
- Garaje itxia alokatzen da Iñigo de Loiola kalean. 686 674 552

Salerosketak

- Haurrentzako janaria prestatzeko Babycook Beaba salgai, erabili gabea. Tfnoa, 661 396 299.

Lan-eskaintzak

- Lasarte-Orian ileapaindegirako laguntzailea behar da asteburuetarako. 637 961 824.

Lan-eskariak

- 29 urteko emakume eskaintzen da interna moduan edo ordura etxeko lanak egiteko. Paperak ditu. Harremanetarako, 669 931 026.
- Klase partikularrak euskara, ingelesa, matematikak, lengoia, etab. eskaintzen dira. Harremanetarako, 693 601 222.
- Obrako peoi, hoteletako garbiketa egiten, base-rian edo zama lanak egiteko gaztea eskaintzen da. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da umeak

- edo adinekoak zaindu, eta etxeko garbiketarako egiteko goizetan. 943 365 038.
- 16 urteko neska prest dago udan umeak zaintzeko. Eskarmentu handikoa eta konfiantza guztiakoa. Harremanetarako, 666 261 030 edo 606 803 366.
- Klase partikularrak emango nituzke. Lehen Hezkuntza eta DBH mailak. Udan, zein ikasturtean zehar. Klaseak goizez edo arratsaldean izan daitezke. Harremanetarako, 600 798 353.
- Haurrak, pertsona adinduek edo garbiketa lanak egiteko emakume eskaintzen da. Interna edo ordura lan egiteko. Harremanetarako, 690 127 821.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak edota zaintza lanetarako. Interna bezala lan egingo luke. Esperientzia eta erreferentziak. Reina Cruz 686 620 145.
- Emakume lan egiteko prest etxetan interna moduan edo bestela. Erreferentziak eta lan eskarmentu handiarekin. Lidia 648 815 319.
- Emakume eskaintzen da adinduek zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. Harremanetarako, 608 131 170.
- Emakume gaztea eskeintzen da asteartetik osti-

- ralera arratsaldetan lana egiteko, etxeko garbiketarako edo pertsonak zaintzeko. 650890354
- Lasarteko neska gaztea eskeintzen da udan lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak emateko. Goi mailako titulazioa du eta begiralearena ere bai. 677823141
- Emakume eskaintzen da garbiketa lanak, haurrak edota zaharrak zaintzeko. Astelehenetik larunbatera lan egiteko prest eta interna bezala behar bada ere bai. Maricruz 608 731 170.
- Lan bila nabil, aurretik pintore, lorazain, ontziak garbitzen eta baserri batean aritu naiz. 638 273 950
- Geriatria ikasitako neska, adineko pertsonak zaindiko lituzke. Beste motatako lanak ere egingo lituzke: garbiketa... 663552573 (Dionisia)
- Magisteritza ikasten ari den neska euskaldun bat, haurrak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest dago. 649 207 669 Garazi
- Neska eskaintzen da arropa lisatzeko. Harremanetarako, 602 517 575.

Bestelakoak

- Pisua alokatu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAKO Kultura eta Euskara Departamendua

## ELKARTASUNA

# Palestinara begira

Biladi Hadi elkartasun brigadak egindako lanaren aurkezpena egin zen asteazkenean kultur etxean



Arramazka taldeko Aroa eta Aitzol Lasa Brigadako parte izan ziren eta liburu-diskaren aurkezpenean abestu zuten.

**M**anuel Lekuona-ko kafetegian dago ikusgai Biladi Hadi brigada kulturalak iaz Palestinan egindako egonaldiko kideek osatutako argazki bilduma.

“BILADI HADI hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik” izeneko liburua eta diskoa kaleratu zuen abenduan Biladi Hadi elkartasun brigadak. Honetan bidaian ateratako argazkiekin bilduma osatu eta Euskal Herriko hainbat esparrutako pertsonen idatzitako testuekin batera jaso zituzten.

Hainbat izan ziren bi txandatan joandako brigadan

parte hartu zuten musikariak ere horien artean Aitzol eta Aroa Lasa Arramazka taldeko kideak.

### Erakusketa ibiltaria

Hain zuzen hauek izan ziren Axier Lopez Argiako kazetariarekin batera proiektua aurkezteaz arduratu zirenak.

Arramazkakoek Palestinan grabatutako Mikel Laboaren “Gure hitzak” kantaren bertsoarekin hasi zuten ekitaldia. Ondoren Axier Lopezek brigadaren eta han ikusitako errealitate gordinaz hitz egin zuen lagun artean bezala gauzatu zen solasaldian.

Argazki erakusketa hau abendutik dabil Euskal Herriko hainbat kultur-etxe eta aretoetatik eta oraingoan gurean izan da egun batzuetan. Argazkiekin batera hauek laguntzen dituzten testuak ere jasotzen dira.

Erakusketak aukera polita eskaintzen du palestinarek egunero bizi duten egoeraz ohartzeko. Izan ere, euren egunerokoan ulertzen zailak diren mugak eta arauak gainditu behar dituzte aurrera egin ahal izateko eta egoera horiek dira brigadako kideek bidaian euren kamerekin jasotakoak.

## San Joan bezpera ekintzaz betea

**S**an Joan bezpera da bihar, Suda ate joka dugunaren seinale. Gure herrian San Pedro jaien aurrekari dugu jai hau eta horregatik ekintzaz betea dator asteburua.

### Dantza eta sua

Bihar 21:30ean hasiko dira San Joan-etako ospakizunak. Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek San Joan zortzikoa dantzatuko dute udaletxe paearen.

Ondoren, Udaltzabarekin batera, Okendo plazara abiatuko dira herriko dantzariak. Soka-dantza dantzatuko eta 22:00ak aldera sua piztuko dute.

### Erketz emanaldia

Bestalde, Erketz EDT-ko kideek gaur, 20:00etan emanaldia eskainiko dute Okendo plazan.

Dantza taldeko heldu,



haurrek eta Erketz-eko lagunak taldeak euskal dantza desberdinak erakutsiko dituzte haien emanaldian.

### Biyak Bat eta Zentro Zibikoa

Biyak Bat erretiratuen elkarte-ko kideek, urtero legez, gaur, goizeko 10:00etatik aurrera aerobik eta gimnastika erakustaldiak egingo dituzte kiroldegian.

Jarraian, 12:00etan, Emakumeen Zentro Zibikoko lagunen txanda izango da. Hauek batuka, aerobik eta sabel-dantzan duten trebetasuna erakutsiko dute.

Era berean, Biyak Bat elkarteak gogora arazten du ekainaren 28an, 12:30ean elkarteak abesbatzak Manuel Lekuona kultur-etxean kontzertua eskainiko duela.

## AKATSAK ZUZENTZEN

### Zikiro afarirako txartelak salgai

Urtero legez, Ttakun Kultur Elkartek San Pedro egunean, ekainaren 29rako, zikiro afaria antolatuko du.

Aurreko zenbakian afaria Okendo plazan, gaueko 21:00etan izango zela argitaratu baguen ere, okerreko ordua eman genuen. Iluntzeko 22:00etan izango da.

Txartelak salgai daude dagoeneko Ttakunen eta Jalgin 20 euroren truke. Txartela eskuratzeko azken eguna ekainaren 25a izango da.

## ABARASKA

### Xumelaren koruaren kurtso amaiera

Oporrak gertu ditugu eta Ttakun kultur elkarteak antilazten dituen hainbat jarduerak ateko dituzte hurrengo ikasturtera arte.

Astelehenean Xumela koruaren azken entseguak izan zen. Honetan, Txapas zuzendariak korua garatzen ari dela azaldu zuen, “nerabezaroan dago” eta urteko emanaldien laburpen txikia egin zuten. Santo Tomas, Santa Ageda bezpera edo Kukuka antzerki eta dantza eskolako hamabostaldian izan da korua.

Honen ostean, herriko kaleetatik barrena ibili ziren kantuan, trikitixa eta gitarraren doinuak lagun zituztela. Ondoren, Arrieskalleta elkarteak bapo afaldu zuten.

Gogoratu San Pedro jaietan ere haien ahotsetaz gozatzeko aukera izango dela, ekainaren 30ean dagoen kantu-jiran.



## MUSIKA

### SuBerri akordeoi orkestra aurkeztu da

Atzo arratsaldean, San Pedro parrokiako lokaletan herriko akordeoi orkestra berria aurkeztu zen, SuBerri akordeoi orkestra.

Aurkezpenean proiektua berria azaldu zuten. Elias Goikouriaren zuzendaritzapean 11 musikari egongo dira, guztiak Zero Sette akordeoi orkestratik ateratakoak.

Aditzera eman zuten instrumentuak lortzeko laguntza behar dute. Era berean, bazkide kanpaina martxan dagoela jakitera eman zuten, informazioa eskuratu nahi duenak, info@suberri.es helbidera mezua bidalitzeko eskura dezake.

Akordeoi orkestra honek dagoeneko bi kontzertu eskaini ditu, Donostia eta Andoainean, Amaia Gonzalez-i esker.

## SAN PEDROAK

### Alboka eta Alboka txikiren kontzertua

Alboka eta Alboka Txiki abesbatzen ikasturte amaierako kontzertuak gozatu ahaliko da igandean, ekainaren 24ean, 12:30etik aurrera Ama Brigitarren komentuan.

Donostiako Mariaren Lagundia ikastolako Txepetxa abesbatza ere bertan izango da eta hauen eskutik, doinu herrikoiak eta nazioartekoak entzungo dira pianoa, biolina edo gitarraren laguntzaz.

Bestalde, lehengo igandean Alboka abesbatza Oriako Karmengo Amabirjinaren kaperako meza girotu eta jarraian sei abestiz osatutako kontzertu txikia egin zuten. Kaperan zeuden herritarrek ederki gozatu zuten eta txalo zaparrada jaso zuten abesbatzak.





# 2012ko aurrekontuak onartu dira

- Asteleheneko ez ohiko udalbatzarrean onartu ziren aurtengo udal aurrekontuak
- Lau urtetan onartzen diren lehenengoak dira 2008koak hainbatetan luzatu ondoren
- Irailean datorren urtekoetan lanean hasiko direla azpimarratu zuen alkateak

**Bildu, EAJ eta LOHP alderdien aldeko bozkekin aurrekontuak onartuko zirela aurreratu zuten aurreko ostiralean udal ordezkariak baina Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuak, PSE-EEtik ateratakoa, aurrekontuen aldeko bozka eman zuen astelehenean ospatu zen ez ohiko udalbatzarrean. Asteartean, Villa Mirentxun arratsaldeko 19:00etan aurkeztuko zizkieten aurrekontu "arduratsu" hauek herritarrei.**

**Maidar AZURMENDI**

Azken lau urtetan ez bezala, aurrekontuak onartu dira. Marisa Zubirik ezustekoa eman zuen asteleheneko udalbatzarrean hauen aldeko bozka emanez.

Ez ohiko udalbatzarrik bi ordu luzeko iraupena izan zuen eta PSE-EEK aurkeztutako emendakinak izan ziren eztabaidagai nagusi. 20 emendakin bozkatu ziren eta hauen inguruko azalpenak eta erantzunak izan ziren bertan entzundakoak. Guztiak bertan behera geratu ziren.

Bilduk aurkeztutako biak berriz aurrera ateratu ziren alkatearen baliozko bozkari eskerrak.

Lehena, idazkaritza nagusiak idazketa berri bat proposatu zuen udaleko aurrekontuak gauzatzeko oinarri batzuetan eta bigarrena, langileen soldatari dagokiona, iazko produktibitate osagarriak lansari finko gisa mantentzeari buruzkoa.

Kasu honetan kontu hartzaileek hitza hartu eta honen legaltasuna zalantzan jarri zuten, hala ere, aurrera ateratu ziren.

## Bertan behera uztea

PSE-EEK lehenik eta behin aurrekontu hauen kontrako emendakin osoa deritzona aurkeztu zuen. Hau da, aurrekontu hauek bere osotasunean bertan behera uzteko eskaera egin zuen Jesus Zaballosek.

Bere hitzetan "aurrekontu hauetan neurri populistikak besterik ez daude. Alderdien kapritxoak jasotzen dira eta diru sarrerak lortzeko neurriak ez dira inon agertzen". Horretaz gain etxebizitza, zabor eta enplegu politika indartsuak aurrera ateratzeko beharrezkoak diren neurrien falta sumatzen dela adierazi zuen.

2012ko aurrekontu hauek ere oso berandu aurkeztu direla aurreiritzen zion Zaballosek Ogasun burua den Estitxu Alkortari "kanpoko enpresa bat ekarri duzue lan hau egitera, dirutza gastatu da

zerbitzu hau ordaintzeko eta hala ere, ekainean ari gara aurtengo aurrekontuak onartzeko eztabaidan".

## Emendakin asko

PSE-EEren osoko emendakina ez zen aurrera ateratu eta jarraian aurkeztutako beste emendakin partzialak banaka aurkeztea ekin zitzaion.

Batzordean aurkeztutakoak gehiago izan ziren, 40 inguru, bertan eztabaidatu eta hainbat onartu edo bertan behera uztea erabaki ondoren 20 aurkeztu ziren astelehenean. Emendakin hauek zehatzak eta gai askoren ingurukoak izan ziren.

Adibidez, Ikastolen festetarako bideratutako diru partida deuseztatzea eskatu zuen alderdi sozialistak, parte hartze prozesuaren publikiziterako gehiegizko diru utzi dela iritzi, partida horretan 10 mila euro murriztea eskatu zuten.

## Proiektuak ez eten

Horretaz gain, besteak beste Antonio Mercero museoaren proiektuari jarraipena emateko 30 mila eurotako partida eskatu zuten ere Zaballosek.

Boris Nogales zinegotziak krisi garaian dirua honetara bideratzea zentzurik ez zuela erantzun zion.

Gazteleku zabaldu eta zerbitzua ateratzeko 19 mila eurotako partida jasotzea eskatu zuen ere ordezkari sozialistak eta Michelingo areto futbol zelaiak estaltzeko 80 mila euro. Basaundi eta Urbarten bi komun jartzeko 120 mila euro eta etxeetan igogailuen instalazioa sustatzeko diru laguntzak jasotzea aurrekontuetan. Hala nola Pablo Garaikoetxea eskolako leihoak aldatzeko 150 mila euro besteak beste.

Emendakin askok erantzuna izan zuten eta oinarrian, zuhurtziaz jokatu dela izan zuten behin eta berriz alkateak baita zinegotzi ezberdinek esandakoa.

Kontutan izan behar da 2008ko aurrekontuak %43a



Estitxu Alkorta Ogasun Batzorde buruak aurrekontuak defendatu zituen buruarekin egindakoak izan direlako.

jaitsi direla eta 23 milioi euro kudeatuko dituela udalak aurrekontuak.

## PSE-EEren gehiegikeria

Emendakinen eztabaidan salatu ziren PSE-EE udalean zegoela hartutako hainbat erabaki. Horien artean Udaletxe berria eta Gaztelekuaren eraikitzea, baita aurrera eramandako etxebizitza politika ere.

Estitxu Alkorta gogoratu zuen herriko haur-eskola Haurreskolak partzuergoaren baitan sartu eta jangela hez-

kuntza sailak bere gain hartuta, diru asko aurreztuko duela udalak baita guztia, "kudeaketa lotsagarri baten ondorioz, Udaletxe berriaren eta Gaztelekuaren ekipazioan eta mantenuan gastatuko dela aurrekontuaren erantzukizuna". Izan ere, Udaletxe berriak, askotan esan moduan, gastu handiak eragingo ditu martxan jartzen den unetik.

Alkateak azpimarratu nahi izan zuen gastuetan murriztu bada ere, hobekuntza lanak egin eta zerbitzuak hobetzeko partidak jasotzen direla aurre-

kontu hauetan. Besteak beste, Michelingo futbol zelaiaren aldaketa, Adarra kaleko urbanizazioa edo Hiribusaren zerbitzua berriro martxan jartzea. Azken honi dagokion pliegoak ere onartuak izan ziren ez ohiko udalbatzarrean hasieran.

Pablo Barrio alkateak aurtengo aurrekontuak berandu aurkezteagatik barkamena eskatu nahi izan zuen eta irailan hurrengo urtekoak lantzen hasiko direla azpimarratu zuen urte amaieran onartuak izan daitezkeen.

## Herritarrei aurrekontuak aurkeztu zaizkie



Lehen aldiz, udalbatzarrean onartu ostean, aurrekontuak herritarrei aurkeztu zitzaizkien. Hitzordua asteartean izan zen Villa Mirentxun.

Pablo Barrio alkateak aurkeztutako aurrekontuak aurkeztu zituen azalpen orokorrak. Hauek prestatzea lan konplexua izan dela azaldu eta nahiz eta gastuak asko neurtu, "bi milioi euro daude hainbat inbertsio egiteko". Herriko argiztapena berritu da, hainbat kale asfaltatuko

diru, udaletxe berriko eta zahar egoitzaren altzariak erosteko dirua aurreikusita da ere nahiz eta bi fasetan egingo den gastua. Sail bakoitzeko arduradunek, diruarekin aurrera aterako dituzten proiektuen berri eman zuten.

## Sasoeta-Zumaburu eskolako Guraso Elkarteak

# “Guraso elkartean egotea umeengatik egin dezakegun inbertsio onena da”

- Bost kide izatetik hogeizatezera pasa dira aurten Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkartean
- Hezkuntzako jarduera onenen lehiaketan bigarren saria eskuratu berri dute

Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteak bigarren saria irabazi du Euskadiko Guraso Elkartean Hezkuntza Jarduera Onen lehiaketan. Saria Zarautzen ospatu zen eskola publikoen festa handiaren baitan eman zitzairen. Lan onari aitortpena izateaz gain, 1.000 euro jaso ditu elkarteak bere ekintzetara bideratzeko.

## Maidor AZURMENDI

**T**XINTXARRIREKIN egindako hitzordura guraso elkarteko hiru kide gerturatu ziren; Josu Riezu guraso elkartearen baitan euskara batzordeko kidea dena, Ikerne Etxeberria, guraso elkartean urteak daramatza eta aurretik beste batzorde batzuetan lan egindako ama da nahiz eta egun, euskara batzordean egon. Hauekin batera, Pello Sanchez, uztailean zurrerik, guraso elkarteko lehendakaria izatera hartuko duena.

## Nolatan sarietara aurkeztea?

BAIKARA Gipuzkoako Ikaslearen Gurasoen Federazioa da eta bertako Garbiñek hauetara aurkezteko animatu gintuen. Berez lana eginda zegoen izan ere guraso elkarte berri du azken urtean eta hau antolatzeke plana da proiektua bera. Guraso elkarte teknologia berriak oinarri hartuta antolatu dugu.

Orain arte oso jende gutxi zegoen guraso elkartean eta orain belaunaldi berri bat sartu gara eta lan egiteko modua erabat aldatu dugu. Orainxe hogeizatez guraso gara eta batzorde ezberdinetan antolatu dugu elkarteak. Horretaz gain, astero biltzen ibili beharrean bloga sortu dugu burunzpe.net, helbide elektronikoen zerrenda osatu eta hauen bitartez gure arteko harremana etengabekoa da eta aldi berean bilera horiek ez dira hain beharrezkoak. Bide hauek erabiltzea gure lana asko erraztu dute.

## Zehazki saria zeinek ematen du?

Bi esan bezala ez genituen sari hauek aurretik ezagutzen. EHIGE Euskal Herriko Ikaslearen Gurasoen Elkarteak da, guraso elkarteak federatuta gaude eta erakunde honek laguntza ematen digu gure ekintzetan. Elkarte hau da lan ona edo praktika onei saria

antolatzen duena. Guk kasu honetan bigarren saria eskuratu dugu eta diploma jasotzeaz gain, 1.000 euro eman dizkigute ere.

## Zer suposatzen du sariak elkartearentzat?

Lan onaren fruitua izan da saria. Azken urtean elkartean bost pertsona izatetik hogeizatezera pasa gara eta honi lotuta teknologia berriak sartu dira. Lan egiteko modua asko aldatu da. Lehen zeudenen artean esparru guztietan lan egiten saiatzen ziren orain antolaketa berriekin, batzordeak eratu dira. Guraso bakoitzak bere lan esparrua dauka. Honek azkarrago eta hobeto lan egitea ahalbidetu digu.

Sariak beti dira gustagarri eta lan onari aitortza izateaz gain, lanean jarraitzeko bultzada ere bada.

## Zeintzuk dira batzordeak?

Funtzioak ondo banatu dira, zuzendaritza batzordea dago, obra batzordea bi eraikinak oso zaharrak daude, eskolaz kanpoko ekintzak arduratzen den batzordea, liburuak eta jaiak eta euskara.

Jai batzordeak esaterako ikasturte amaierako festa antolatu zuen orain gutxi eta oso ondo atera zen. Inkesta bat pasa dugu gurasoen artean eta momentuz jasotako iritziekin oso pozik gaude. Batzuek ideia berriak ere proposatu dituzte.

## Euskarari garrantzia berezia eman nahi diozue?

Orainxe indar gehien honetan ari gara egiten. Euskara batzordean bost guraso gaude lanean. Baina elkarte guztiko gurasoak ere inplikatuak daude eta beste hainbat guraso ere elkartean egon gabe euskara bultzatu eta sustatzeko lan honetan laguntzeko prest daude. Helburua oso garbia da, euskararen erabilera sustatzea umeen artean. Badakigu herrian gaztelera



Josu Riezu, Pello Sanchez eta Ikerne Etxeberria dira Sasoeta-Zumaburu eskolako Guraso elkarteak kideak.

nagusi dela kalean eta guk zerbait nahi dugu egin aldatzeko.

Ekintzak hiru alorretan, lehenik gurasoak sentsibilizatzeko euskararen erabilera, bigarren ekintza multzoa eskola erreferente bihurtu euskara alorrean eta azkenik euskararen erabilera bermatu eskola arloko inguru osoan.

Hau aurrera eramateko, euskara talde bat sortu dugu gurekin lan egiteko prest daudenak eta aholkularitza baten kanpoko laguntza izango dugu. Horrela bide honetan aditu baten laguntza izango dugu eta berak hainbat hitzaldi emango ditu besteak beste.

## Lan asko dago egiteko esparru honetan?

Kontutan izan behar da Sasoeta-Zumaburu eskolako gurasoen artean euskaldun kopurua murriztagoa dela eta horregatik zailagoa da lan hau. Horregatik nolabait denen aldetik jarrita, euskaldun eta ez euskaldunen artean hizkuntzaren erabilera sustatzea garrantzitsua da.

## Guraso elkarte orain dinamikoagoa da?

Noski esan bezala jende gehiago gara eta gauza gehiago iristen gara. Lehen astero biltzen ziren eta hor egon ordez astero gehiena blog eta email bidez egiten dugu baita chat bidez ere. Adibidez jaieren inguruan inkesta pasa dugu iritzia eskatzeko...hau posible da komunikazio tresna berri hauek esker. Gure lanak eragin zuzena du eskolan.

Gurasoei gurekin komunikatzeko metodo berria eskaini diegu post-en bitartez. Gainera erregistratu ostean automatikoki jasotzen dituzte berriak. Kurto bukaerako jaian adibidez blogaren publizitatea egin zen eta nabaritu da parte hartze gehiago ere.

## Eskolako zuzendaritzak zer dio?

Oso harreman ona dugu beraiekin eta gertukoak. Askok gustatzen zaie bloga eta ibiltzen dira irakurtzen, iritzia ematen... alde horretatik ez dago inolako arazorik. Benetan oso inplikatu daude egiten dugun lanarekin.

## Zein esparrutan egin behar duzue lan?

Guraso elkarte hau oso aktiboa da eta buruan gauza asko dauzkagu eta aurrera aterako ditugu ziur baina geroz eta guraso gehiago inplikatu behar ditugu. Guraso askok lana eginda nahi dute. Oso polita da esatea jaia izugarri

ondo egon zela baina oraindik batzuk konturatu behar dira hori horrela dela batzuen lan gogorari esker.

Guraso elkartean egotea gure umeengatik egin dezakegun inbertsio hobena da eta hori orain egin behar da txikiak direnean. Gauzak aldatzeko barrutik egitea da hobena.

## Datorren ikasturterako berri-kuntzarik baduzue?

Ba eskolaz kanpoko ekintza bat ingeleseztan izango da. Uste dugu hirugarren hizkuntza hau ere beharrezkoa dela egun eta txikitatik jolasen bidez hau hitz egiten ikastea bide hobena iruditzen zaigu. Ez dira ingeleseko klaseak izango, ingeleseztan burutu den jokoetan oinarritutako ekintza.

Saria jasotzeko garaian Isabel Celaá hezkuntza sailburua zegoen eta eskola publikoetan ezartzeko asmoa zegoen eredu hirueledunaren inguruan galdetu genion.

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomoa ontzutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Txistorra

Baseri pateak



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • Tel: 943 361 278 - 943 361 655 - 943 362 451

Lasarte-Oria

## LABURRAK.-



## Maialen Chourraut bikain nazioarteko txapelketetan

Maialen Chourraut herritarra indartsu dabil Cardiff eta Pauen izan diren Slalomeko Munduko kopako probetan urrezko domina eskuratu du. Emaiza hauei esker, Munduko kopako proben sailkatua da eta Londreseko Joko Olimpikoetan domina lortzeko aukera handiak ditu.

Lasarte-Oriako gazteak bi probetako finalerara hirugarren postuan sailkatu zen. Cardiff-eko proban, gainera, ate bat ikutu zuen.

Finaletan, nahiz eta zailtasun batzuk izan, jaitziera azkarrak egin zituen eta lehen sailkatuen jaitzieren zain geratu zen. Aurkariak ez zuten herritarren denbora gainditu eta irabazle izan zen.

Asteburu honetan, bere prestakuntzarekin jarraituz, Maialen Chourraut La Seu d'Urgellen egingo den Munduko kopako proban izango da herriko palista. Etxean jokatu du, baina egun txarra edozeinek izan dezakeela oso argi du lasarteoriatarrek.

## Tour-eko porra egiteko epea ireki da

Ostadar SKT-k antolatzen duen Tourrerako Porran parte hartzeko epea ireki du. Aurten San Pedro jaiekin batera hasiko da lasterketa, ekainaren 30ean. Beraz adi, boletok bete eta aurkezteko epea larunbatean, hilaren 30ean, 21:00etan amaitzen da eta. Boletoko ohiko tabernetan aurkituko dituzue 7 eurotan.

Sariei dagokionez, etapako irabazlearentzat 60 euro, sailkapen orokorreko lehenarentzat 360 euro eta bigarrenarentzat 180 euro izango dira. Horretaz gain, 7 urdaiapiko zozketatuko dira parte hartuko dutenen artean eta zortzigarrena faroloiari emango zaio. Puntu gehien batzen dituen tabernak bi pertsonentzako afari bat irabaziko du Larre Jateetxean.

Eta noski, Tour eta Giroko porretan onena izan den txartelak 1000 eurotako saria izango du.

## IGERIKETA.-

## Ederki Harri Garmendia txapelketan

Ibarburu infantil mailan hirugarren izan zen eta Espainiako marka gutxienekoa lortu zuen, 100 m. bizkar proban

**Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Harri Garmendia txapelketan izan ziren lehengo larunbatean eta emaitza onak lortu zituzten. Hirugarren postua infantil mailan, Estatuko eta Euskadiko markak eta marka pertsonalak egin zituzten.**

### Nerea EIZAGIRRE

Donostiako Paco Yoldi kiroldegian izan zen Harri Garmendia txapelketan Buruntzaldea IKTko igerilariak ederki egin zuten igeri eta guztiek haien markak hobetzea lortu zuten.

Guztien artean, azpimarragarria da, Iñigo Ibarburuk egin zuen txapelketa. Bi probatan, 100 m. bizkar eta 400 m. libre, marka pertsonalak egin zituen eta egindako markekin puntuazio orokorrean hirugarren sailkatu zen infantil mailan.

Gainera, lehenengo proban igerileku luzeko Espainiako txapelkerako marka gutxienekoa egin zuen eta 400 libreetan gertu geratu zen, 2 segundura.

Itsaso Tolosak 50 bizkar proban eta 200 m. estilo pro-



Buruntzaldea IKT-ko igerilariak markak hobetzen jarraitzen dute. BURUNTZALDEA IKT

ban bere marka hobetzeaz gain, 200 m. estiloetan Euskadiko marka gutxienekoa lortu zuen.

Jone Vazquez ere Euskadiko gutxieneko markatik gertu izan zen 400 m. libre proban. Bere marka 13 segundu hobetu ostean, marka gutxienekotik bi segundura geratu zen. 200 m. libreetan ere bere marka hobetu zuen.

Honetaz gain, Haitz Mitxelena 50 m. eta 200 m. libreetan, Mikel Arribillagak 200 m. eta 100 m. bular probetan, Mikel Sotok 50 m. bular eta 100 m. libre probetan, Naiara Lizasok 100 m. eta 50 m. probetan eta Kevin Iglesiasek 50 m. bular proban haien markak hobetu zituzten.

Aste honetan Gipuzkoako Udako txapelketan izango dira Buruntzaldea IKTko gazteak eta Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "gure igerilariak marka hobetu eta Euskadiko eta Espainiako marka gutxieneko berriak lortzeko itxaropen eta asmoekin joango gara".

### Denboraldi berria

Bestalde, igeriketa taldeak gogora arazten du 2012-2013 denboraldian parte hartzeko izena emate epea gaur amaitzen dela.

Interesa dutenek jarri harremanetan Borjarekin Lasarteko igerilekuan, 18:00ak eta 21:00ak bitartean edo 696 506 632 telefonoan.

## KIROL AGENDA.-

### ARETO-FUTBOLA

Larunbata 23  
**MOSSO OROIMENEZKOA, FINALA**  
 Kiroldegia  
 11:30ean, Buenetxea-ISU Leihokak

### ATLETISMOA

Larunbata 23  
**Durango, 10:45etatik aurrera**  
 LOKEko kadeteak Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

### ESKU-PILOTA

Larunbata 23  
**SANTA PEDROKO TXAPELKETA, FINALERDIAK**  
 Loidi-Barrengo pilotalekua,  
 10:00etatik aurrera  
 Urko Izagirre eta Endika Mertxan-Mikel Marcos eta Ugaitz Igarriz *Aurrebenjaminak*  
 Amets Encinas eta Iker Sarasola-Manex Martirikorena eta Iñaki Urruzola *Benjaminak*  
 Gorka Marcos eta Julen Alberdi-Iban Otxandorena eta Alex

Exteberria *Alebinak*  
 Pello Sarasola eta Jesus Presa-Goio  
 Solano eta Mikel Arroio *Beteranoak*

Igandea 24  
**SANTA PEDROKO TXAPELKETA, FINALERDIAK**  
 Loidi-Barrengo pilotalekua,  
 10:00etatik aurrera  
 Unai Sorrondegi eta Aimar Lizaso-Oier Sevillano eta Endika Izagirre *Aurrebenjaminak*  
 Julen Galan eta Jokin Beloki-Beñat del Olmo eta Roke Etxezarreta *Benjaminak*  
 Hugo Iñigo eta Julen Urruzola-Jon Martin eta Xabier Uli *Alebinak*  
 Mieltxo Ariztegi eta Xabi Etxezarreta-Goio Solano eta Juan Mari Arteaga *Beteranoak*

### PALA

Asteartea 26  
**SANTA ANA TXAPELKETA**  
 Loidi-Barrengo pilotalekua  
 18:30ean, Santieta Bernaitz-Xabi eta Mikel  
 19:15ean, Xenki eta Munda-Pagola eta Jesus  
 20:00etan, Potzu eta Gari-Alain eta Txema

Asteazkena 27  
**SANTA ANA TXAPELKETA**  
 Loidi-Barrengo pilotalekua  
 18:30ean, Jonpe eta Iker-Iñigo eta Carlines  
 19:15ean, Iñaki eta Joseerra-Galdos eta Izeta  
 20:00etan, Imanol eta Ander-Goiko eta Azkona

### IGERIKETA

Larunbata 23  
**Azken Portu, Irun, 10:00etan eta 17:00etan**  
 Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta senior igerilariak Gipuzkoako Udako txapelketan izango dira.

Igandea 24  
**Azken Portu, Irun, 10:00etan eta 17:00etan**  
 Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta senior igerilariak Gipuzkoako txapelketan izango dira.

### TRITLOIA

Igandea 24  
**Donostia, 09:15etatik aurrera**  
 Herriko hainbat atletak Donostiako

XXVII Nazioarteko Triatloian parte hartuko dute.

### TENISA

Osteguna 21-Igandea 24  
 Madril  
 Patxi Fadrique herritarrek '1 International Open Villa de Pinto' tenis egokituko txapelketan parte hartuko du.

### TXIRRINDULARITZA

Ostirala 22  
 Zamarraga, 18:30ean  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek XXIII. Gipuzkoako itzuliko prologoan parte hartuko dute.

Larunbata 23  
 Olaberria, 10:00etan  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek XXIII. Gipuzkoako itzuliko lehenengo etaparen parte hartuko dute.

Agurain, 16:00etan  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko lehenengo urteko kadeteak Gaztetxoak trofeoan parte hartuko dute.

Igandea 24  
 Biyak Bat, 08:00etan  
 Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Zerainera.

Araia, 10:00etan  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko bigarren urteko kadeteak Gaztetxoak trofeoan parte hartuko dute.

Andoain, 16:00etan  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek XXIII. Gipuzkoako itzuliko bigarren etaparen parte hartuko dute.

Astelehena 25  
 Segura, 16:00etan  
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek XXIII. Gipuzkoako itzuliko hirugarren etaparen parte hartuko dute.

## Agenda

Ostirala 22, Okendo plaza, 20:00etan



### Dantza ikuskizun polita Okendon

Erketz EDTko eta Erketzen lagunak taldeak ikasturte amaierako emaldira eskainiko dute. Erketz EDT-k Okendo plaza kolorez eta musikaz beteko du gaur arratsaldean. Honetan herriko dantza taldeko txikiak, gazteak eta helduek hainbat euskal dantza taularatuko dituzte, muxikoiak, makil dantza...

dia eskainiko dute.

**12:00etan**, Emakumeen Zentro Zibiko kideek batuka, aerobik eta sabel-dantzako erakustaldiak egingo dituzte.



### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Ostirala 22

KTG Kanpaldietako bilerak:

**17:00etan**, Zumaia-Bakio DBH1

**18:15ean**, Bortziriak DBH2-DBH4

### VILLA MIRENTXU

**Astelehena 25, 19:00etan**

Bilduk Herri Batzarra egingo du. Urtebeteko balantzea, 2012an egitekoak, Gazteleku, hondakinen kudeaketa eta partehartzea eztabaidagai izango dira.

## Lasarte-Oria

### Musika

TRUMOI TABERNA

**Ostirala 22, 00:00etan**

Txomin DJ Session-ek musika saioa egingo du.

**Larunbata 23, 00:00etan**

Manu 16V DJak 70 eta 80 hamarkadako punk eta rock musikaz beteriko saioa eskainiko du.

### AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

**Igandea 24, 12:30ean**

Alboka eta Alboka-txiki abesbatzak Txepetxa abesbatzak lagunduta, urte amaierako kontzertua eskainiko dute. Sarrera doan.

### Jaiak

OKENDO PLAZA

**Larunbata 23, 21:30etik aurrera**

San Juan bezperako Udal kooperazioaren desfilea Udaletxetik Okendo plazara, San Joanetako zortzikoa, sokadantza eta sua izango dira.

### Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

**Asteartea 26, 23:30ean**

Mikel Bermejo herritarrek bakarriketa eskainiko du. Sarrera doan

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

**Ekaina osoa**

Endika Elizechearen "Garuna Lantzen Unibertsoan" marrazki erakusketa.

### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Ostirala 15-Ostirala 22**

Brancussi akademiako ikasleen margo eta marrazki erakusketa ikusgai izango da.

**Astelehena 18-Ostirala 22**

"Biladi Hadi, Hamaika begirada Palestina Euskal Herriatik" proiektuko argazki eta irunzkinen erakusketa ikusgai izango da.

### Bestelakoak

KIROLDEGIAN

**Ostirala 22**

San Pedro jaietako aurrekari bezala:

**10:00etan**, Biyak Bat erretiratuen elkarteko kideek Aerobik erakustaldia eskainiko dute.

**11:00etan**, Biyak Bat erretiratuen elkarteko kideek gimnastika erakustal-

## Andoain/Hernani

### Jaiak

KALEETAN

**Ostirala 22-Asteazkena 27**

San Joan jaiak ospatuko dituzte.

## Orio

### Omenaldia

KARELA KIROLDEGIAN

**Ostirala 22, 22:00etan**

Manuel Lasarte bertsolariari omenaldia. Joserra San Sebastian abeslariak eta Patxi Etxeberria bertsolariak parte hartuko dute, besteak beste.

## Herritarren txokoa

### Sorgin Jaietako arropa salgai

Badatoz aurten ere Sorgin Jaiak. Jaiak iritsi bitartean asteazken eta ostiralero Okendo plazan izango gaituzue arropa saltzen 18:30etik 20:30era

### Euskara ikasleentzako diru-laguntzak

2011-2012 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoritarrek Udaleko Euskara Zerbitzuak ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko aukera izango dute.

Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira bulego ordutegiaren barruan. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan egin behar da diru-laguntza eskaera.

Era horretan, Udalak eskura jarriko dituen eskaera orriak, eta zinpeko deklaraziorako ereduak ere aurkeztu beharko dira. Bestalde, eskaerari erantsi beharko zaizkio laguntzak jasotzeko eskatutako agiri guztiak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke, 943 376 184, edo Udalaren web-orrian kontsultatu.

### Futbol eskolan izena emateko azken eguna

Ostadar K.F. jakinarazten du, gaur Futbol Eskolan izena emateko azken eguna dela.

Futbol Eskolan hurrengo denboraldian egon nahi duen haurrak baldintza hauek bete behar ditu: Buruntzaldeko bazkidea izatea; Eskola Kirola egitea, 2004, 2003 edo 2002. urtean jaiotakoa izatea edo Lasarte-Orian bizitzea.

Eskolako arduradunek iaz Futbol Eskolan egon ziren neska eta mutilek eta Ostadarreko bazkideek lehentasuna dutela jakinarazi nahi dute. Era berean, plazak mugatuak direla ere azpimarratzen dute.

Inskripzioa Ostadarreko egoitzan, 18:00etatik 20:00tara, egingo da.

### Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako Udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

## Hemeroteka

### Duela 1017 ale



1994ko apirilaren 29an, 2.025 milioi pezetako aurrekontuak onartu ziren. Honen harira, TXINTXARRIK aurrekontuak nola egiten ziren azaldu zuen.

Orduan, Ana Urchueguia alkateak azaldu zuenez, urtebeteko lanen ondorio ziren. "Sarrerak eta gastuak pareko izan behar dute" adierazten zuen eta "aurrekontu defizitariorik ezin da onartu, aurrekontuak udalaren posibilitatera egokitu behar da" gaineratzen zuen. Orduko krisi ekonomikoak eragina izan zuen aurrekontuetan "4. kapituluko gastuak gutxitu behar izan ditugu, horko dirua Udaletxeko inbertsioetara gehitzeko eta horela kreditu gutxiago eskatzeko. Kredituak eskatzea erokeria da" aipatzen zuen.

Gainontzeko alderdien emendakinak eta iritziak jaso zituen erreportajeak eta HB-k osoko emendakina egin zuela ere jakitera eman zen.

Honetaz gain, 1990 eta 1994 urteen artean kapitulu desberdinetan egondako sarrera eta gastuen errepaso egin zen grafikoan bidez.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Eva Olazagoitia Futbol jokalaria ohia

# “Hobetu da emakumeen futbola”

- Añorgako taldean eta Gipuzkoako selekzioan jokatu zuen 1983tik 1987ra bitartean
- Larunbatean Anoetan emakumezkoen futbol aitzindariak omenduko ditu ESAITek
- Besteak beste, Atotxan, Riazorren eta Camp Nou-n jokatu zuen lasarteoriatarak

*Eva Olazagoitia sarri ikusiko duzue Lasarte-Orian baloiarekin. Bere bi alabek eutsi diote bere zaletasunari eta gustura aritzen dira futbolean. Amak Añorgan jokatu zuen 80. hamarkadan eta Gipuzkoako emakumezko futbol jokalarien aitzindarietako bat izan zen. Hain juxtu, larunbatean, 16:30etan jokatuko den Euskal Herriko eta Eslobakiako emakumezko selekzioen arteko norgehiagokaren aurretik omenduko dituzte emakumezkoen futboleko aitzindari izandakoak.*

Jon ALTUNA IZA

**E**va eta bere ahizpa Txaro Olazagoitia lasarteoriatarrek futboleko jokatu zuten duela 30 urte inguru, bakoitzak bere aldetik: Evak Añorgan eta ahizpak, herriko beste bizpahiru lagunekin, Eason.

## Noiz hasi zinen futboleko jokatzeko?

Ni 1983an, Gipuzkoa mailan jokatu zen lehenengo txapelketan. 1981ean sortu zen Añorgako taldea, baina, ordu arte, ez zen ligarik.

Nik, ikastolan, mutulekin jokatu nuen jolas garaian futboleko, gustatzen zitzaizkidalako, gero, Batxilergo Institutuan Arantxa Bakero ezagutu nuen eta berak esan zidan, nahi banuen, Añorgako taldera joateko. Horrela hasi nintzen entrenamenduetara joaten. Nire lagun artean bakarrik nintzen.

## Zenbat urtetan jokatu zenuen?

Sei bat urtean. Beste batzuek urte askoan jarraitu zuten, baina arratsaldean hasi nintzen ikasten, beste lan bat ere banuen... Urte batzuetan gogorra izan zen, astean bi entrenamendu egiten genituen eta asteburuan bi partidu, bat futboleko eta beste areto futboleko. 1987ra arte jokatu nuen futboleko eta gero beste pare bat urtean areto futboleko.

## Zein postutan aritzen zinen eta zeintzuk ziren zure ezaugarriak?

Eskuin hegalean jokatu nuen. Ez nintzen atzelari gogorra, baina futboleko hasi aurretik atletismoan aritzen nintzen, txikitatik korrika egiten nuen eta aurrelaria markatzen "lapa" bat nintzen, azkarra, aurre hartzen nien. Nire lana egiten nuen, gero baloia aurrera pasa eta beste batek jarraitu zezala.

## Golik sartu al zenuen?

Gola, sartu bat ere ez, baina sartzen utzi ere gutxi.

## Ondo pasatzen al zenuten?

Bai. Lagun talde polita egin genuen, gustura ibili nintzen.

## Sarri irabazten al zenuten?

Ni nengoela ez genuen liga txapelketarik irabazi, baina gerora Añorgak irabazi zituen liga batzuek. 1984ean lehenengo aldiz jokatu zen Espainiako txapelketa, Atotxan jokatu genuen finala Galiziako talde baten aurka, baina hauek denbora gehiago zeramaten futboleko (guk batzuek beste 17 urte bagenituen, haiek 25) eta saiatu ginen, baina gu baino sendoagoak ziren.

Txapelketa bakarrik irabazi nuen, Gipuzkoako selekzioarekin, Burgosen, Medina de Pomar-en, nire azken urtean 1986-1987an, baina Añorgak Oartzuni irabazitakoak ere gogoan ditut. Pozgarriak izan ziren. Lagunak ginen. Selektzioan batera ginen eta parrandetan ere bai.

## Irabazteak poza eta jarraitze-ko gogoa ekarriko du, ezta?

Jolastea bera soilik pozgarria zen. Klub-en arteko Espainiako txapelketako partidu bat Galizian Koruña-ko Riazorren jokatu genuen eta beste behin, Gipuzkoako selekzioarekin, Bartzelonan Camp Nou ere bai. Han finala galdu genuen. Normalean baino ikusle gehiago zeuden Camp Nou zelaian gero Barça jokatzeko zuelako: oso handia ikusten zen.

Handia izan zen Atotxan jokatzea ere, gure gelako mutilek ez zuten sekula jokatu, baina oso jende gutxi izan zen, senideak eta besteren batzuek.



Camp Nou-n jokatu zuen Eva Olazagoitiak Gipuzkoako selekzioarekin. Erdi-erdian zutik da.

**EGITARAU** larunbata 23  
 10.30: **Anoeta kanpoan** festaren hasiera.  
 11.00: Porrotx-Irrien Lagunak  
 11.00-13.00: Euskal Jokoa  
 11.30: Txan Magoa  
 12.00: Irrien Lagunak  
 DJ Bull  
 13.00: Ekitaldia  
 14.00: Ze esatek  
 15.30etan, **Anoeta zelaian**  
 Alex "Gatibu", Ange Duhalde eta Narra "Amairu" abeslariak  
 16.20: Aitzindariak omenaldia  
 16.30: Euskal Herria-Eslobakia

## Orduan ez al zegoen Euskadiko selekzioerik?

Ez, orduan Gipuzkoako zegoen eta ondo aritzen ginen. Euskadiko selekzioa 1992-1993an hasi zen jokatzeko.

## Selekzioaren lehen partidua larunbateko delako esan dute bada...

Ez, ez, lehen estatu mailan jokatu zuen, autonomi erki-degoen artean izango zen, eta larunbateko, nazioarte mailako lehenengo izango da.

## Partidua hasi aurretik "emakumezkoen futboleko aitzindari izandakoei omenaldia" egingo zaizue...

Bai, esan didatenez, Añorga eta Oartzuneko omenduko dituzte, eta talde bakoitzeko bi jokalarik ohi joango dira. Garai hartan Lasarteko lauzpabost neska ari ginen talde ezberdinetan.

## Joango al zara larunbateko Anoeta Euskal Herria-Eslobakia partidura?

Agian bai, beste bazkari bat dauka, baina saiatuko gara joaten. Pena ematen dit ez joateak. Bi alabek ere futbolariak datoz. Nora zaharrenak 10 urte dituzte eta Ostadarren ibiltzen da.

Lagunarteko partiduren bat izaten du hilean behin eta gustura ikusten dugu.

## Orain jada Erreal eta Athletic-ek emakumezkoen taldeak dituzte, garrantzia gehiago hartu du andrazkoen futbolak...

Bai, semiprofesionalak dira, kostatu da baina oso ondo iruditzen zait.

Aurten egon gara Zubietan Errealeko eta Athletic-eko nesken arteko partidu bat ikusten eta egia esan hobetu da maila, batzuek oso ondo jokatu dute. Guk baino gehiago entrenatuko dute seguraski, azken finean gu lagun talde bat ginen.

## Oraindik alde handia dago, zabalkunde edota aurrekontu aldetik gizonen eta emakumezkoen futbolaren artean?

Bai, kirol askotan gertatzen da, gehiago laguntzen zaio gizonen kirolari, tamalez horrela da, baina garrantzitsuena kirola egitea da, beti da ona eta osasuntsua, berdin zait futbola, korrika, saskibaloia edo pilota izan.

## Kirolik egiten al duzu orain?

Orain korrika, footing. Iaz hartu nuen parte lehenengo aldiz Behobia Donostian, asko sofitu nuen baina DYAK atxikitu gabe iritsi nintzen. Bero handia egin zuen eta jende asko ikusi genuen bide erdian kateatuta. Normalean ez dut hainbeste korrika egiten, hemengo krosa eta beste-ren bat. Gorputzak eskertzen du, baina denbora ateratzea kostatzen da: alabak, lana, etxeko lanak... Haurrekin padelean ere aritzen gara, mendian ibili, frontoian...



Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean